



**TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO**

hitza



**Larunbata
2010-04-10**

VIII. URTEA 1.971. ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO

Abentura eta natura uztartzen dituen parkea zabaldu berri dute

ABALTZISKETA Larraitzen, Txindokiren magalean, aurkitzen da Mariren Zuhaitzia izeneko parkea.

EZINDUAK Sugaar izeneko ibilbidean aulki moduko batzuetan zintzilik ibiliko dira besoan laguntzarekin 4-5



Liderra, Alejandro Valverde, taldekidez inguraturik igaro zen atzo Santutxoko bidegurutzetik. ASIERIMAZ

Ibarrako Udal ordezkariek Ekuadorreko Ibarra ezagutzen dabilta

POLITIKA Txelo Romeo alkatea eta Itziar Jauregi zinegotzia joan dira 3



HITZA

NEREA ERBITI
ABESLARIA ETA TRIKITILARIA

«Diskoaren grabaketa nahiko gogorra izan zen»

LEITZA Gaztelurrutiaren proiektu berrian kontrolto moduan hartu du parte 7

EUSKAL HERRIKO ITZULIKO OILARRAK GURE ERREPIDEETAN

TXIRRINDULARITZA Joaquim Rodriguezek irabazi zuen Bidegoiandik igaro zen atzoko etapa; Alejandro Valverdek lider jarraitzen du eta gaur jokatu da itzuliko azken lehia: erlojupekoa 6



Zientzialari bezala edota paper antzerkian trebatzen

GIZARTEA • Aste Santuko oporraldia bukatzeko asteburua baino ez zaie geratzen gaztetxoei, astelehenean hasiko baituzte berriro ere eskolak. Ordura arte, ordea, bada zertaz gozatua herrian. Atzokoan, esaterako zientzialari izatera jo-

lastu ziren gazte ugari Errota Haur Liburutegian, DNAz gehiago ikasteko aukera izan zutelarik era dibertigarrian. Topic Txotxongiloen Nazioarteko Zentroan, bestalde, paper antzerki tailerlean aste osoan ikasi dutena erakutsi zu-

ten atzo eginiko emanaldian. Gaztetxoek taldeak *Txanogorritxo*, *Hiru txeritxoak*, *Pinotxo* edota *Sirenatxo*a bezalako ipuinak irudikatu zituzten bitartean, helduek *Galtzaundi* edota amona baten abenturekin egin zuten antzerkia. i.t.

TAKeko sei taldek hartuko dute parte Gipuzkoako Txapelketan

Arrauna » Pasai San Pedron, gaur arratsaldean sailkatze probak izango dira, eta bihar goizean, berriz, finalak.

ERREDAKZIOA

Hitzordu garrantzitsua du asteburuan Tolosaldeko Arraun Klubak, izan ere, Gipuzkoako Batel Txapelketan hartuko dute parte klubeko sei taldek. Pasai San Pedron izango da lehia; gaur, 16:30ean hasita, sailkatze estropadak jokatu dituzte, eta bihar, 10:30etik aurrera, finalak izango dira.

TAKetik nesken hiru talde, hau da, promesak, jubenilak eta seniorrak ariko dira, eta beste hiru mutilenak, infantilak, kadeteak eta jubenilak. Sabino Alijostes klubeko ordezkaria baikor dago txapelke-



Nesken hiru taldek eta mutilen beste hiruk hartuko dute parte. HITZA

taren aurrean, eta sei taldeak zortzi lehendabizikoan artean sailkatzea espero du. Gainera, sei taldeetatik hiruk behintzat dominaren bat irabaziko dutela uste du «eta agian banderaren bat ere bai». Promesa eta senior mailako neskek eta jubene-

nil mutilen taldeak dira, hain justu, goiko postuetan egotea espero dutenak.

«Presarekin askoz hobeto»

Entrenatzeko orduan presa mar txan jarri dutenetik «askoz hobeto» ari direla moldatzen dio Alijostesek. Hori bai, esperotakoa baino beranduago jarri zuten; «aurreikusitako data atzeratu egin zen, eta ondorioz, ezin izan genuen behar bezala entrenatu, eta kanpora, bai Oriara edota Getariara, joan behar izan dugu uretan entrenatzera, horrek sortzen dituen eragozpenekin». Horrek guztiak eragina izan dezakeela, baina beraiek euren helburua betetzen saiatuko direla dio taldeko ordezkariak.

Horrela bada, gaurko sailkatze probak gaititu eta bihar bandera lortzeko lehia ikusiko ditugu eskualdeko arraunlariak.



Annapurako oinarritzko kanpalekua. RTVE/AL FILO DE LO IMPOSIBLE

Gailurrera bidean jarri litezke gaur Pasaban eta espediziokideak

Mendia » Eguraldiak laguntzen badu gailurrara eginen saiatuko dira, azken egunak oinarritzko kanpalekuan igaro ostean.

ERREDAKZIOA

Eguraldiak ez die gehiegi laguntzen Edurne Pasaban mendigoizale tolosarrari eta bere espediziokideei, eta azken egunetan Annapuraren oinarritzko kanpalekuan daude gailurrari ekiteko eguraldi hobea noiz egingo zain. Dena den, ez dute gehiago itxaron beharko, izan ere, aurreikusitako eguraldia

egiten badu gaur ekingo diote goranzko bideari.

Oh Eun Sun korearra ere oinarritzko kanpalekuan dago, eta berearekin tea hartzeko aukera ere izan zuten iragan asteartean. Orain arte eginiko lana azaldu zion, hau da, hirugarren kanpalekura arteko bidea ireki dutela eta sokak jarri dituztela. Horiek erabiltzeko eskaintza ere egin zion tolosarrak, eta korearrak edo zertarako berarekin kontu dezakeela erantzun zion eskertza modura.

Annapura Pasabanen 13. zortzimilakoa litzateke, eta hori egin ostean Shisha Pangma geratuko litzaike mendigoizaleari.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

Ekuadorreko Ibarra herria bisitatu dute

Politika » Txelo Romeok eta Itziar Jauregik bidaiaren erdia egin dute jada; orain Santa Rosa eta Baba herrietara joango dira.

ERREDAKZIOA

Txelo Romeo Ibarra alkateak eta Itziar Jauregik, Euskara eta Hezkuntzako zinegotziak, Ekuadorra egiten ari diren bisitaren erdia bete zuten pasa den astean.

Han egon diren bitartean «inpresioa oso ona» izan dutela argitu dute, izan ere, hainbat bilera instituzionaletan parte hartu dute, «hauetan adeitasuna nagusi izan delarik».

Gainera, «Ibarra sustatutako udal-ekintzen inguruko interesa plazaratu da», gaineratu dute. Lehenengo fase honen ondoren, udal ordezkariak Ibarra Udalak finantzatzeko duen Ibaratik Misio Taldeak herrialde honetan garatzen duen proiektuak ezagutuko dituzte.

Enbaxadorearekin

Txelo Romeok eta Itziar Jauregik izan zuten lehen bilera, Alejandro



Romeo eta Jauregi Ekuadorreko enbaxadorearekin Quitoan. HITZA



Ibarra Udalako arduradunak Ekuadorreko Ibarra herriko alkatearekin. HITZA

Suarez Ekuadorreko enbaxadorearekin izan zen. Berarekin 45 minutuz elkarrizketatu ziren eta Ekuadorreko egoera hobeto ezagutzeko aukera izan zuten. Ibarra-ko udalerriko ikuspegi nagusi bat ere eskaini zioten.

Quito hiriko Ekuadorreko Atzerriko Kantzileratzen egin zuten bileran honetan, udal ordezkariak *Herri bat, bi kontinente* izeneko liburua eman zieten enbaxadoreari. Gogoratu behar da liburua Ibarra Udalak finantzatu duela Ekuadorreko Ibarra herriarekin senidetako programaren baitan. Liburua gaztelaniaz, euskaraz eta ingelesez argitaratu dute eta bi udalerrietako informazioa biltzen du.

Ibarra herrian

Lehen bileraren ondotik, Romeo eta Jauregi Ekuadorreko Ibarra herria joan ziren bertan ere liburua aurkezteko. Ekitaldian erakundeetako hainbat ordezkari eta «komunikabide askok» hartu zuten parte.

Prentsaurrekoaren ondoren, alkateak eta zinegotziak Ekuadorreko Ibarra alkatearekin biltzeko aukera izan zuten, udalerririk

bizi duen errealitatea hobeto ezagutzeko, eta bi herriek mantentzen duten harremana indartzeko konpromisoa hartu zuten.

Ekuadorreko Ibarra alaba kuttunak

Ibarra udal ordezkarien hitzetan, «jasotako harrera beroaren isla da» biak Ibarra alaba kuttun izendatuak izan zirela.

Ekitaldi berean, bere garaian Gipuzkoako Ibaratik Latinoamerikako herrialdera joandako bizilagunak ere ezagutu zituzten eta senidetutako bizilagunei zuzendutako oroigarriak ere jaso zituzten.

Behin bidaiak ofizialaren lehen zatia amaituta, Txelo Romeok eta Itziar Jauregik udalerririk ezberdinetara egingo dute bisita, Ibarra Udalak finantzatuta garatzen ari diren proiektuak ikustera.

Udal ordezkariak, zehazki, Baba eta Santa Rosara joango dira herriko Ibaratik Misio Taldeak leku hauetan sustatzen dituen jardueren jarraipena egiteko.

Ibarra Udalak urtean aurrekontuaren %1 bideratzen du garapen bidean dauden herrialdeetako proiektuetara, eta kopuru horren erdia talde horrek Ibaratik sustatzen dituen ekintzetan inbertitzen dutela azpimarratu dute udal ordezkariak.

Leitzako Aurrerako pilotariak Euskal Herria ezagutzen

ERREDAKZIOA

Zazpi Txapelketa desberdinetan ariko dira Aurrerako pilotariak asteburu honetan. Guztira bederatzi partida jokatuko dituzte Leitzako Pilota Eskolakoek, gaur eta bihar eta han eta hemen.

Euskal Herriko Pala Txapelketa

Oiartzunen jokatzeko ari den Euskal Herriko Nesken Pala Txapelketan, Iera Agirrek gaur jokatu du 09:00etan hasiko den jaialdian. Maider Otegiarekin osatuko du bikotea. Aurkari bezala berriz Redondo-Errasti edukiko dituzte.

Gravn Txapelketa

Jon Jaunarenak jubenilen mailan jokatu du gaur Altsasun, 10:00etatik aurrera. Nafarroa ordezkatu du leitzarrak eta aurkari bezala Bizkaiko pilotari bat edukiko du.

Irurtzungo Txapelketa

Aurrerako hiru bikote irtingo dira gaur kantzara Irurtzunen, 09:30etik aurrera. Alde batetik, Txoperena-Goikoetxea. Bestetik, Salaberria-Lezea eta azkenik Ander Gartziaarena-Lenitz Galartza. Benjamin, alebin eta infantil mai-

lako pilotariak dira hurrenez hurren.

Irurritako Paleta Txapelketa

Paleta Goman Iera Agirre-Saioa Aristorenak elkarrekin jokatu dute Iruritan. Jaialdia 16:00etan hasiko da eta leitzarrek laugarren partida jokatu dute. Agirren egun berean jokatzeko duen bigarren partida izango da.

Zaramagoko Txapelketa

Kadete mailan Anartz Olano-Mikel Hernandorena bikote sendoa ikusteko aukera egongo da gaur Gasteizen, 16:30ak inguruan.

Lizarrako Txapelketa

Mikel Sagastibeltza Egüesek eta Mikel Sagastibeltza Lasartek osatzen duten bikote infantilak, Lizarran jokatu du gaur. Pilota jaialdia 16:00etan hasiko da eta leitzarrek bederatzigarren partida jokatu dute.

Herrerako Txapelketa

Aurrekoen asteburuko azken partida igandean jokatu dute Herreran, 10:00etatik aurrera, Olano-Tolosak. Leitzarrek kadete mailan jokatzeko dute.



Sorgina sorgindu dute Lankukoek

IBARRA • Kultura eta Gazteria Batzordeak Pazko Astearen harira antolatuta zuten kultur ekimena atzo amaitu zen. Kultur Etxean haur ugari elkartu ziren atzokoan, Lanku taldearen *Hiru, bi, zasto... Egizu jolas!* ikusteko asmoz. Bertsoa eta antzerkia ederki moldatu zituzten Lankuko kideek, sorgin bat sorgintzera iritsi zirelarik errimekin jolas eginaz. ASIERIMAZ

Ramon Otegi gazteluarra bigarren Maratoi erdian

ERREDAKZIOA

Ramon Otegi korrikalari gazteluarra martxoaren 27an Azkoitia-Azpeitia Maratoi Erdian hartu zuen parte, bide batez Gipuzkoako Txapelketan ere parte hartuz. Ordubete 9 minutu eta 52 segundoko marka egin zuen. Marka honekin 2. postua lortu zuen, bere taldekide eta lagun Asier Cuevas eta Ibon Esparzenaren tartean geldituz. Bere marka eta 8 minutuan dago.



Iragarki laburrak

SALGAI

■ **Egongelako altzariak.** Armairua, mahai borobila 4 aulkirekin eta 5 piezako bi sofa. Oso egoera onean daude. Interesatuak deitu 610 68 60 68 telefono zenbakira.
■ **Lokala.** Iruran, Laskibar bailaran, N-1 ondoan. 118 m². 78.000 euro. 645 72 19 47.

Tolosaldeko eta Leitzaldeko komunikabide batek **Kazetaritzan edota Euskal Filologian lizentziatuak** edo ikasleak behar dituzte **lan poltsa osatzeko.**

Interesatuak deitu **687 41 00 32** telefono zenbakira edo bidali curriculum-a tolosaldean@tolosaldekohitza.info helbidera

ZUHAITZETATIK ZINTZILIK



Zuhaitz parke batean ibilzea erakargarria bada, Txindokien magalean eta arratsalde eguzkitsu batean, are erakargarriagoa. I. GARCIA

Abaltzisketa = Zuhaitzetik zuhaitzera, abentura eta natura uztartzen dituen parkea martxan jarri berri dute Larraitzen: Mariaren Zuhaitzia.

IMANOL GARCIA

Txindokien magalean, Larraitzek hainbat aitzakidun bertarjato. Orain beste bat sortu da: Mariaren Zuhaitzia izeneko par-

ke. Txindokiko Itzala proiektuaren baitan garrantziko parke batek natura eta abentura uztartzen ditu. Bizibiziki enpresak jarri du martxan proiektua, Abaltzisketako

Udalak bultzatutako lehiaketa irabazitostan.

Ekaitz Zubezu Txindokiko Itzala proiektuaren arduradunak dioenez, «garrantziko lokal eta turismo aktiboarekin zerikusia duten egitasmoak egiten ditugu Bizibiziki enpresatik». Dekaldu egin zuen Udalak parke bat egiteko. «Guk Txindokiko Itzala aurkeztu genuen. Hau da, gune bat, parkea

bera baino gehiago» dena eta inguruko beste herri batzuetara zabaldu nahi duguna, baxen garapenari laguntzeko», dio Aurrera begira, parkeaz gain, beste egitasmo batzuk jarri nahi dituzte abian, artzainei bere lan-eremuan bisita egitea eta Anezketan eskalada ikastaroak antolatzea, esaterako. Zuhaitz parkea Aste Santuaren bitartean ireki zuten eta «sekula-

ko arrakasta» izan duela azaldu du Zubezu. «Egunero izan da gendebertan». Ondoko pasatzea da helburua eta bitartean naturaz gozatea. Parkeak, izan ere, «oso gaitza»- ibili direla esan dute Txindokiko Itzalakoei. «Alde batetik berrikuntza bat delako eta, bestetik, Larraitzen josten direnak zerbitzu faltan botatzen zutelako», dio Zubezuak, berak ez badu ere irizki berdina: «Esaten zuten jendekok hemen ez zegoela ezer, eta ingurura begiratu besterik ez dago ikusleko inolako paisaia eta mendakik dardena».

Horrelako ekimen bat eguraldiaren menpe egoten da eta auria egiten duenean itxi egiten dute. Justu aste honetan, astelehenen, itxi egin behar izan zuten.

Egurakik laguntzen duenean, jaiagunetan eta asteburuetan dago irekita. Uztailaren eta abuztuaren egunero izango da aukera, eta uda-

Lau ibilbide daude: zailtasun ertainekoa, helduentzat, haurrentzat eta ezinduentzat

Beste egitasmo batzuk egin nahi dituzte ere: artzainei bisitak, eskalada ikastaroa...

berrian eta udazkenean astean zehar ikastetxe eta taldeentzat egongo da zintzilik. Aste Santuko opar hauekin batzere norbanakoak joan dira. 10:30ak inguruan irekitzen dute eta azken taldea 18:30ean hartzen dute. Tartean, 14:00etatik 15:00etara itxita egotenda.

Mitologiaren barrena

Lau ibilbide ditu Mariaren Zuhaitziak. Ezinduentzako ibilbidea, Sagar izenekoa, 4-8 urte bitarteko umeentzako ibilbidea, Bassiaun izenekoa, 1,40 metro baino altuagoentzako ibilbidea, Mikelats-Atarrabi izenekoa eta bizibizitako ibilbidea, Mari izenekoa. Guztiek airean sentitzeko aukera ematen dute: mihiltzarrik, tirilirik, sarekin egindako tunelak.

Gunea ikusita eta Txindokiko Mari buruz entzundako istorioei errepentuz, abentura eta mitologiaren elkartu ditugu, dio Zubezuak. «Sagar, indarra, ezinduen ibilbideak jarri ditugu. Helduen ibilbideak Mari jarri ditugu, berriz inguruko hiltzen delako, eta ibilbide horrek diu tirolinea gehien». Larraitzeko basoaren pinak, haritzak eta pagok erabili dituzte ibilbideak egiteko.

Prezioei dagokionez, haurrek bot ordu ordaindu behar dituzte. Mikelats-Atarrabi egiten dutenak 9 euro eta horrez gain Mari ibilbidea ere egiten dutenak 15 euro or-



Alturaren zirrararen gustatzen zaionari aukera du Mariaren Zuhaitzian nahi adina abentura jasotzeko. I. GARCIA



Heldu zein haurrek parte hartu dezakete ibilbideetan. I. GARCIA



Zenbait haur arnesa jantzita abenturan murgiltzeko prest. I. GARCIA

daindu behar dituzte. Ezinduen ibilbidea egiteko 15 euro ordaindu behar da.

Ezinduen zuzendutakoa

Gipuzkoako zuhaitz-parke balarra da Larraitzekoa. Baina beste herrialdeetakoak ez duten bereiztasun bat bada: gurgildun aukieretan doazenezat prestatutako ibilbidea. «Aukeratu moduko batzuetan eserita jartzen dira, zintzilik, eta ibilbidea besoen indarrekin egiten dute», azaltzen du Zubezuak.

Azken ukituak egiten ari dira proiektuaren bultzatzaileak eta aurki martxan hasiako espero dute. «Abaltzisketatik Larraitzera egin den ibilbide egokina ondoan daukagu eta herri kontuan hartu dugu ibilbide bereizitua egiteko», dio arduradunak. «Norbit Sagar ibilbidea egiten ari bada, besteek ondo ikusi dezakete nola egiten ari den».

Mariaren Zuhaitzia pixkanaka eragunago egiten joango dela dihardu. Aste ordainduen, behintzat, gazte zein haur ugari probatu zuten nola sentitu daitekeen norbit zuhaitzetatik zintzilik.



Hainbat zailtasun eta erronka topatuko ditu Mariaren Zuhaitzian barrena sartzen denak. I. GARCIA



Euskal Herriko Itzuliko bosgarren etapa eskualdetik pasa da

Txirindularitza » 14:30ak aldera Santutxoko bidegurutzetik gora Bidegoianera igo ziren txirindulariak.

ERREDAKZIOA

Atzo Euskal Herriko itzuliko bosgarren etapa izan zen eta Eibartik abiatu eta Oriorako bidea egin behar izan zuten 50. itzulian lehiari dabiltzan txirindulariek.

Bidean, 14:30ak inguruan eskualdetik pasa ziren eta txoko askotan bezala, gurean ere ez zen ikuslerik falta izan txirindulariei animoak emateko. Beizamatik igo eta Santutxoko bidegurutzetik pasa eta Bidegoianerako bidea hartu zuten. Ihesaldi saiakera ugari izan ziren eta gurean ihes eginda lehen postuan hiru txirindulari pasa ziren; tartean zen Euskaltel-Euskadiko Amets Txurruka txirindularia. Eguneko ihesaldian sartu eta bertatik ihes egin eta ba-



Santutxoko bidegurutzean hiru txirindulari ihes eginda pasa ziren. A. IMAZ

karririk zihoala, zorte txarra izan eta Aiako lehen jaitsieran erorikoa izan zuen. Azkenean, Joaquim Rodriguezek eskuratu zuen garai-pena helmugan bakarrik sartuz. Valverde lidergoari eutsi zion.

Orio-Aia-Orio erlojupekoa
Gaur bukatuko da itzulia Orio-Aia-Orio erlojupekoarekin. 22 kilometro egin beharko dituzte eta lehen txirindularia 14:00etan abiatuko da eta azkena 16:45ean.

Herriarteko Eskupilota Txapelketako zozketak

ERREDAKZIOA

XLIII. Herriarteko Eskupilota Txapelketan parte hartuko duten 23 herriren arteko zozketak egin dituzte. Lehen partidak hilaren 18an eta 25ean jokatu dira eta Txapelketa ekainaren 13a bitarte luzatuko da.

Honela geratu dira zozketak: talde batean, Alegia, Usurbilen aurka; Oiartzun, Bidegoianen aurka; Zestoa, Amezketaren aurka eta

Andoain, Eskoriatzaren aurka. Beste taldean, Amasa-Villabona, Albizturren aurka, Soraluze, Lassarate-Oriaren aurka eta Arrasate, Tolosaren aurka. Gure eskualdeko sei herriek lehen txandan jokatu eta garaipena eskuratu beharko dute aurrera egin ahal izateko.

Hurrengo txandan zain izango dira: Azkoitia, Ataun, Hernani, Elgoibar, Donostia, Astigarraga, Aretxabaleta, Bergara eta Azpeitia.

Alpino Uzturretik irteera Lassetik Bankara

ERREDAKZIOA

Alpino Uzturre Elkarteak hilaren 18rako mendi irteera antolatu du. Lassetik hasi eta Banka herrian bukatuko da eta Munhoa (1.221m.) eta Adartza (1.250 m) mendiak igo-

ko dira. Autobusa Santa Klaratik 07:30ean aterako da. Bazkideek 11 euro eta besteek 13 euro ordaindu beharko dute. Izena alpinouzturre@hotmail.com helbidean edo 943 65 27 89 telefonon.

Nere senez, itxaropenez



» Herrira begira

Aimar Sagastibelza
Futbolaria

Laueunez Leitzen eon ondoren Teruelea biden noa autobus triste hontan. Gabe da, beño jendea animatue eta aldatu antxa sumatze; normala, gehienak oporetta diztean itxure baito. Ametsen finalen esandako autobus baten barruan goaz baina bide berean ez etortzen zait burure. Arrozobe haundie. Lan zalle izanet illunpe beltz hontatik idatzi on bat itteko argi printze atezaten.

Apirillen baten 11. partidue segidaren irabazi giñun eta lider jarri gal! Denboraldi guzian lidertzan arras-toan ibilli ga, ta momentu earren lortu du. Sei partidu falta die liga bukatzeko, gehi geroko igoera-fasea. Ikeragarrizko urtea itten ai gala garbi dau; sekuleko puntu pille dauzkeu.

Beño bueno, oain arte indakoak apenas balioik izanen don bukaeran ez badu borobiltzen. Presio dextenteko partidu hok heldu dien hontan ikusiko da zein dien egitazko jokalarik. Zerbatte eskatzen, hankapen dauzketen moletsi alu hok paken uztea besteik ez nuke nahi. Eztot beste preokupazioik.

Haseran esan dotenez, Leitzen izan naiz Aste Santutan. Eonaldie earki aprobetxatu doten iduittue dotenez pozik nau, nahiz ta aukeban azkar antxa pasatu zazkiten

eunek. Gustoko gauz asko itteko parada izan nun; familikin ta launekin eon, otordu earrak, mendire bueltaxkak, kirol pixko bat, arrantza joan, juerga... Ah! Ta Peru-Harri parkei nere arriban konpani bikañekin indako bixita. Ikusgarrie bezin interesgarrie da, badau zer ikusi eta aztertue. Harro sentittu gatzetze leitzarrak holako altxor bat eulkitzez herrin. Bere egillek zoriondu behar, Iñaki Perurena eta laguntzaillek.

Azkenik, Xala ta Zubietak jantzi due binakako txapela. Txapelketa haseran Tolosan izan nitzen Oinatza eta Belokik nola irabazi zioan ikusten. Momentu hartan esan balitea gerora haik irabaziko zuela txapelketa ba parrez hasi izan nitzen, han giñeuden denan gisen. Halar, banekun haik irabaziko zuen errezero gaxtoa aurreko idatzin esan nizu bezala eh! jeje.

Laburrak

'Arthur y la venganza de maltazar' eta 'Invictus'

VILLABONA • Gaur, 17:00etan, *Arthur y la venganza de maltazar* filma eskainiko dute eta 19:30ean eta 22:30ean, *Invictus* filma ikusteko aukera izango da Gurea Zinemaren. Ilandean, hilak 11, 17:00etan *Arthur y la venganza de maltazar* izango da eta 19:30ean, *Invictus* eskainiko dute. Astelehenean, hilak 12, ohi bezala ikuslearen eguna izango da eta 21:30ean, *Invictus* ikusteko aukera izango da.

Astelehenean, 19:00etan festak antolatzeko bilera

ANOETA • Herriko festak gerturazten ari direla eta, bilerarik ez da falta egun horiek prestatzeko. Horretarako, astelehenean, hilak 12, 19:00etan, udaletxean elkartzeko dira. Ohi bezala herritar guztiak gonbidatuta daude.

Nafarroaren Eguna joateko autobusa

TOLOSA • Hilaren 25ean, Baigorri Nafarroaren Eguna ospatuko da. Hori dela eta, Nafarroaren Eguna joateko Galtzaundi Euskara Taldeak autobus antolatu du. Tolosako tren geltokitik 09:00etan abiatuko dira eta itzulera 18:00etan egingo dute. Kostua 12 eurokoa izango da eta bazkideek 10 euro ordaindu beharko dute. Izena Galtzaundiren egoitzan eman behar da.

Tolosa Kantari kantu jirako entseguak

TOLOSA • Tolosa Kantari kantu jirakoak dagoeneko hil honetarako entseguak prest dituzte. Bi entsegu izango dira, hilaren 14ean eta 21ean eta Tolosako Musika Eskolan egingo dituzte 20:00etatik aurrera.

bertako egunkaria
egin zaitez harpidedun!

902-82 02 01

(Asteegunetan 08:30-20:30 / Larunbatetan: 09:00-13:00)

www.tolosaldekohitza.info

eraman/bidali izen-emate orria:
Araba etorbidea 5 behea • 20400 Tolosa
Herriko plaza 1 • 31180 Leitza

beharrezkoa da datu guztiak betetzea

• Izen-abizenak:	• N A :
• Lanbidea:	• Jaioteguna:
• Helbidea:	• Herria:
• P, K:	• Tel.:
• Posta elektronikoa:	
• Kontu zenbakia:	

E Elkarrizketa

NEREA ERBITI › Abeslaria eta trikitilaria

Musika › Beste abentura batean murgildu da leitzarra; Mikel Gaztelurrutia & The New Jazz Voice Ensembleko diskoan entzun daitezkeen lau ahotsetako bat da.

REBEKA CALVO

Inguruko herri askotan trikititza soinean hartuta erromerietanguztiak dantzan jarri ostean, proiektu berezi batekin datorkigu oraingoa Nerea Erbiti (Leitza, 1980). Mikel Gaztelurrutia piano-jotzaile eibartarraren azken proiektuan hartu du parte, Mikel Gaztelurrutia & The New Jazz Voice Ensembleden lehen diskoan, alegia. Errepertorio koloretsua osatu du eibartarrak ahotsak laukote batentzat, ahotsa baita azken finean, proiektu honen benetako leit-motiv-a eta horietako bat, kontraltoa, leitzarrena da.

Diskoak 13 kanta biltzen ditu eta tartean badira oso ezagunak diren doinuak ere.

Horrela da bai, The Police taldearen Roxanne kantua dago, Stevie Wonderren Don't you worry about a thing edo Aita Donostiaren Oinazez konposizio ederra, baina honekin batera badago Mikelek berak sortutako samba bat, Samba Do Novo Amor izenekoa. Gainontzeko abestiak jazzeko estandarrrak dira.

Nola jaso zenuen proiektuan parte hartzeko gonbita?

Egia esan proiektua aurretik ezagutzen nuen, eta kristoren inbidia ematen zidan, asko gustatzen zitzaidan eta beti pentsatzen nuen horrelako ahots proiektu batean egotea gustatuko litzaidakeela. Ilusio asko egin dit horregatik; ezagutzen nuelako eta gustatzen zitzaidalako. Gainera oso zaila da jazzajotzea, tarte bat aurkitzea, eta gustuko dudana eta ikasten ari naitzena egitea. Mikelek kontserbatorioan egiten du lan eta pasa den Jazzaldian zuten kontzertu batean ahotsetako baten baja betetzeko eskatu zidan, horrela hasi zen guztia.

Eta nolako esperientzia izan zen?



HITZA

«Horrelako proiektuan ahotsak bere kabuz ondo aritzea ez da nahikoa»

Oso ona, baina egia esan ez nekien Jazzaldian jo behar genuenik, nik banekien kontzertua genuela Donostian, baina ez Jazzaldiaren barruan zenik. Han bertan erateratu nintzen eta oso urduri nengoen, baina oso esperientzia ona izan zen.

Iruñeko Musika Kontserbatorioan hirugarren urtea duzu jazz ikasten, salto handia al dago kontserbatoriotik diskora?

Oso desberdina da: kontserbatorioan ikasten ari zara, bertan kontzertuak ere ematen ditugu, baina beste era batera hartzen dituzu. Hau gainera oso bat batekoa izan zen.

Bi aste besterik ez zenituen izan proiektua zureganatzeko...

Asko ikasi dut, baina egia esan nahiko gogorra izan zen grabaketa. Aipatutako kontzertu hori bakarrik egin genuen elkarrekin eta

horretan ere ez nuen denbora askorik izan. Hala ere, oso desberdina da kontzertua edo disko horrela, oso denbora gutxiarekin, egitea. Diskoan guztia oso ondo lotuta eraman behar nuen, eta nahiko gogorra izan zen. Beraiek guztia argi zeukaten. Ni grabatzera iristerako beraiek guztia grabatuta zeukaten, eta nik nire ahotsa sartu nuen.

Nolakoa izan zen grabaketa?

Nik nire puska ikasi nuen, nire ahotsa, baina gero ez nekien bestein ahotsak nola joango zirenen zehatz-mehatz. Nire lan egiteko modua izan zen, estudioa joan, beraien grabazioa pare bat aldiz entzun eta beraien abestiak nola egin zituzten ikustea. Azken finean, erregulatuak guztiak, bibratoak, xehetasun guztiak... Eta gero grabatu. Eromena izan zen.

Zaila izan al zen lauan ahotsak lotzea?

Egia esan horrelako proiektu batean lau ahotsak bere kabuz ondo aritzea ez da nahikoa, oso garrantzitsua baita guztiak ondo lotzea. Oso lan konplikatu da. Beraiek denbora asko zeramaten batera eta hori askonabaritzen da. Ni izan naiz iristen azkena.

Nortzuk osatzen duzue taldea?

Mikel Gaztelurrutia bera, arregloak egiteaz gain diskoaren produktzioa ere egin duena; Richie Ferrer kontrabaxuan eta Vicent Thomas baterian. Eta gero lau abeslari egon gara: Maria Jesus Abaigar sopranoa, Andoni Arcilla tenorea, Asier Arcilla baxua eta ni, kontralto moduan.

Inguruan jazz jaialdi ugari badituzue ere, ez dakit nola ikusten duzuen jazz zirkuitua hemen?

Oso oso zaila da jazzajotzea hemen. Oso leku gutxi daude non jazzajotza sartzen duten. Jendeari ez zaio

gehiegi interesatzen, funkya edo hemen gehiago entzuten den estiloa ez bada. Baina hala ere, nire ustez jazzajotza leku askotan sartu daiteke; kultur etxeetan, tabernetan... Proiektua erakargarria da, eta jazzajotza ere bai. Geroz eta gehiago ezagutzen ari da. Taberna eta horrelakoez gain internet ere badago, eta hemen zer egiten den ikusteko modua eskaintzen du, kanpoan zer egiten den...

Aurtengo Jazzaldian egoteko aukerarik izango al duzue?

Iaz jo genuenez, ez dut uste aurtentzako aukera izango dugunik, baina badaude jazz jaialdi gehiago hemen inguruan...

Zein balorazio egiten duzue kontserbatorioan eman dituzun urtearen inguruan?

Barrenen egonda badirudi gutxiago ikasi duzula, baina gero atzera begiratzen duzue, orain hiru urte egindakoari erreparatzen diozue, eta konturatzen zara asko ikasi duzula. Horretan sartuta zaude egun osoan eta asko ikasten dut astero. **Horretaz konturatze inguruen iritziak ere baliagarriak izango dira, ezta?**

Bai. Abesteko era aldatu zaidala ere esan izan didate. Bibratoa adibidez, hemengo musikan bibratoa ez da erabiltzen, brasildar musikan bezala, dena da oso plano, eta orain bat batean bibratoarekin hasten naiz eta ez naiz konturatu ere egiten. Jendeari asko harritzen dio horrek, aldatzea horrek. Baita estilo aldatetarako ere.

Zein desberdintasun dago folkaren eta jazzaren artean?

Jazzekoa batez ere ikuspuntu ezberdina da. Lehen gehiago zen melodia abestu eta listo, baina oraingo ikuspuntua desberdina da. Orain ahotsa instrumentu bat bezala tratatzen dut.

Trikitixa eta jazz uztartuko al dituzue?

Trikitixarekin zerbait egin nahi dut, baina zerbait oso puntuala. Kontserbatorioko jendeari zerbait egin dut eta beraiei asko harritzen die. Kanpotik etorri dira ikastera eta askok ez dute ezagutu ere egiten. Berria egiten zaie eta beraien ikuspuntua asko interesatzen zait. Askotan mugatuta zegoela iruditzen zitzaidan eta beraiei esker gauza desberdinak egiteko aukera dagoela ikusi dut.

H Hilberriak

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

hilberriak urteurrenak eskertzak

HITZAK Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu
tolosaldean@tolosaldecohitzza.info / Tel.: 943-65 56 95

MADDILARRAÑAGA ETXARTE



HAURRA

-Goian bego-

Joan zara

gu joango gara

baina hemen gauden

bitartean

ez zaitugu inoiz ahaztuko.

AITATXOREN KOADRILA

Haren arimaren alde etortz bat eskaltzen dizue eta arren etor zaituzte! GAUR LARUNBATA, arratsaldeko SERRETAN Gaztelako ANDRE MARIAREN JASOKUNDA parroki elizan egongo den hiletara. Aldez aurretik, mila esker.
Oharra: Gorputz bella Tolosako FUNERARIA VASCONGADA Tanatorioan egongo da, gaur, larunbata, 13:00ak arte.



TOLOSAN
2010eko apirilaren 10ean



19°
7°

GOIZA OSKARBI
ARRATS. OSKARBI
BEROENA 15°
HOTZENA 5°

Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Rebeka Calvo
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko-hitza.info

Zuzendariordea: Asier Imaz. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko-hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 032. tolosa@tolosaldeko-hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko-hitza.info.
Anoeta: 687 410 022. anoeta@tolosaldeko-hitza.info.
Ibarra: 687 410 118. ibarra@tolosaldeko-hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko-hitza.info.
Leizaldea: 687 410 118. leizaldea@tolosaldeko-hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:

BERTAKO
HEDABIDEAK



eta Tolosaldeko eta
Leizaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Armezket, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako
Foru
Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

Girona inguruan eta Pirinioetan ateratako argazkiak bidali dituzte XI. HITZA Argazki Lehiaketara. Hilaren 28a baino lehen bidali zurea.

Laba eta ura



HERRIALDE KATALANAK

«Castelfolit de la Roca herria da, Gironatik gertu dago. Herri hau harkaitz baten gainean dago, bere garaietan inguruko sumendiak martxan zeudenean labak eraginda». MAIDER IBÁÑEZ (TOLOSA)



PIRINIOAK

«Arrec D'Arnousse arroilan dago aterata argazki hau, Pirinioetan». ION ALEJOS (TOLOSA)

A Agurrak

agurrak

urtebetetzeak
urrezko ezteiak
ezkontzak
jaioberriak
jaunartzeak...

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- HITZAren egoitza Tolosan: Araba etorbidea, 5 behea
- HITZAren egoitza Leitza: Udaletxeko bulegoa



Zorionak!

Laida (Amasa-Villabona).
Gaur 24 urte. Muxu pila bat Sandrakoen partetik. Ondo pasa!



Zorionak!

Ixaskun (Tolosa). Gaur 6 urte. Muxu handi bat zure aita, ama eta ahizpa Maialenen partetik!



argazki lehiaketa



bidali
opor
hauetako
argazkiak!

NORA
BIDALI?

tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info helbide elektronikora edo HITZAren Tolosako edo Leitzaiko egoitzetara **Apirilaren 6tik 28ra**

HITZA aste santuko argazki lehiaketa

1. Saria



3. Saria



2. Saria



ako Iturbe
kean bi pertsona
basatzeko auker

to Artiketxe
tsionentzako
tzeko aukera

ztagileen esku
eder